

**SAN VIATOR KOMUNITATEKO ANGEL M.^a IPIÑAREN
HIZKUNTZ KONTSULTA.**

GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUN-TXOSTENA

Gasteiz, 1997-XI-7

Angel M.^a Ipiña jaun agurgarria:

Onomastika eta Hiztegiko batzordeetara bezala gurera ere iritsi zaigu zuk bidalitako gutuna. “Clérigos de San Viator” Kongregazioaren izena euskaraz nola litzatekeen galdetzen duzu bertan.

Gramatika batzordeak auziaren arlo gramatikalaz bakarrik eman dezake bere iritzia, eta honako hau da: aho batez erabaki du *San Viatorren* litzatekeela forma egokia, eta ez *San Viatorreko* nahiz *San Viatorreko*.

“Clérigos” hitzaren ordaina aurkitzea, berriz, ez dagokio Gramatika batzordeari, eta, guk baino hobeto erabakiko dutelakoan, beste batzordeentzat uztea erabakai dugu eginkizun hori.

Jaso ezazu gure agurrik zintzoena.

Jesus Mari Makazaga,
Gramatika batzordeko idazkaria